


Arte paleolitikoaren altxor berria Lekeitioko Armintxe kobazuloan



Bobedan azaldutako grabatuen irudikapena. ARG.: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA.

Lekeition kobazuloa oso ezaguna den arren, inork ez zuen espero honelako altxorra azalduko zenik kobazuloaren bukaeran: berrogeita hamar animalia-irudi ikusgarri, tartean bi lehoi —Kantauri Itsasoaren inguruan inoiz azaldu gabeko animaliak—. Denak duela 14.500 urte ingurukoak.

ADES taldeko espeleologoek aurkitu zituzten irudiak udaberrian. Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusi Unai Rementeriak adierazi duenez, “paleolitiko garaiko artearen benetako santutegi bat, Iberiar penintsula osoan ezagutzen den multzo ikusgarri eta harrigarriena” da. “Benetako altxorra. Gizaki guztioi dago-kigun altxorra”.

Bi lehoiez gain, hamasei zaldi, bost ahuntz, bi bisonte eta identifikatu gabe-

ko lau animalia azaldu dira, bobeda kokatuta dagoen tokiगतिक argi natural soilaz ikusten direnak. Denak harriaz grabaturik daude, eta detaile handiz irudikatuak, Madeleine aldiko artean ohikoa den bezala: ilea, ahoa, begiak eta bestelako elementuak kontu handiz eginda azaltzen dira.


Historiaurreko katedradun eta Kantabriako Unibertsitateko César González lanean aritu da koban: “teknika paleolitiko xumeak erabiltzen zituzten, baina oso ondo moldatzen zituzten esku artean zuten euskarrira. Armintxe kobazuloko kareharriak paretan zimirtsua eta ezegonkorra bihurtzen du, eta erraz askatzen da. Harriaz grabatzean kareharria pixka bat altxatu egiten da eta oso ondo ikusten da irudia”.

Lehoiari dagokionez adierazi du felinoak Iberiar Penintsularen iparraldetik duela 10.000 urte inguru desagertu zirela, Europako beste toki batzuetatik beranduago desagertu baziren ere. Baina Armintxe kobazuloak badu bestelako altxorrik ere: irudi abstraktu batzuk azaldu dira, klabiformeak deritzenak. Irudi abstraktu horiek Pirinioen bestaldean azaltzen diren sinboloen berdin-berdinak dira. Horrek agerian uzten du hemengo eta Pirinioen bestaldeko populazioen artean komunikazioa zegoela. Gonzálezen arabera, “handik ereduak eta ideiak iristen ziren. Baina interakzioa bi zentzutan izan zen, hemengo elementuak ere han azaltzen baitira”.

Haiek mugimendu handiko garaiak izan zirela dirudi. Gonzálezen esanetan, “ingurumenaren faktorea izango zen tartean, baina antolaketa sozialak bizi zituen aldaketek eragindakoak ere izango ziren. Garai honetan, ustiapen ekonomikorako estrategiak dezente aldatu ziren. ●



Lehoi baten grabatua azaldu da Armintxe kobazuloan, Kantaurin azaldu den aurrenekoa. ARG.: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA.



ARG.: © ELSEVIER LTD

Mikroskopia elektronikoa, lehendabiziko aldiz koloretan

Mikroskopio elektronikoen objektuak 10 milioi aldiz handiago erakuts ditzakete, eta mundu mikroskopikoari begiratzeko oinarritzko erreminta dira. Baina orain arte zuri-beltzean bakarrik ikustea lortzen zuten. Teknika berriak hiru metal erabiltzen ditu —lantanidoak—, geruzetan zelularen gainean jarrita. Metalak elektroiak galtzen dituztenean, galera detektatu egiten du mikroskopioak, eta galera bakoitza kolore artifizial batekin erakusten du. Oraingoz hiru kolore bakarrik sor ditzakete: gorria, berdea eta horia. ●